

SEKUIA!

1. Mikelen txakurra hil egin da. Zer egingo dugu gorpuarekin?
2. Baloiarekin jolasean hasi gara herriko plazan eta helduak terrazetan daude. Heldu batek esan digu baloiarekin ez jolasteko edo ez molestatzeko. Zer egin genezake?
3. Zer nahiago duzue eskolara joan edo lanera joan? Eta zertan egingo zenukete lan?
4. Egubakoitz arratsaldea da eta jolasean zabiltza plazan. Txiklea jan eta zorroa zakarrontzira botatzera joan zara. Zakarrontzia beteta dago, zer egingo duzu? Ez daukazu poltsikorik.
5. Goxoki dendako atea zabalik dago, baina oraindik ez da zabaltzeko ordua. Gaur ez daukazu paga handirik eta goxokiren bat jan gura duzu. Eutsiko ote diozu tentazioari?
6. Aukerarik izanez gero Arrasate herriko paretak margotzeko, margotuko zenukete? Eta zelan?
7. Aukerarik izanez gero ikusezina izateko, entzungo zenuke zure bi lagunen arteko elkarrizketa? Zergatik?
8. Txakurrek, katuek, behiek, ardiek eta pertsonak, eskubide berberak izan beharko lituzkete? Zer eskubide? Non bizitzeko eskubidea?
9. Kartzela zigorra bai? Kartzela zigorra ez? Noiz eta zergatik?
10. Gatazka batetik errefuxiatu taldea ihesi dator herrira. Arrasatek dituen biztanle kopuru berdina dator. Zer egingo dugu?
11. Zer da euskalduna izatea? Maddi, Numedia baino euskaldunagoa da? Zergatik?
12. 3 super botere dituzu eta horri esker gura duzuna aldatu. Zer aldatuko zenuke Arrasaterena? Zergatik?
13. Arrasatera gerra iristear da. Zer jarrera hartuko duzu? Gerran parte hartuko duzu? Zergatik? Zertan?
14. Zure ustez, helduek krudel jokutzen dute hurrekin? Adibiderik bururatzen zaizu?
15. Zigorrak beharrezkoak dira? Zergatik? Eta zelako zigorra jarriko zenuke zuk, beharrezkoa balitz?
16. Adinez nagusia izateak (18 urte) botere gehiago ematen du? Zergatik? Zeintzuk?
17. Hil ostean zer gurako zenuke gertatzea zurekin? Zergatik?
18. Elurra egin du eta Udala auzora joan zara eskiak hartuta. Zelai batean elur txuri-txuri ederra ikusi duzu eta erromara zabalik dago bertara sartzeko. Zer egingo duzu? Zergatik?
19. Zer da feminismoa? Zu feminista zara?
20. Zer da elkarbizitza? Zergatik da beharrezkoa?
21. Zure amonak esan dizu lesbiana dela. Zer jarrera hartuko duzu horrekiko?

SEKUIA!

22. Etxeko lanak bai ala ez? Zergatik?
23. Zer uste duzu behar duzula pozik bizitzeko?
24. Zer da artea?
25. Gelan zaude eta puzker bat botatzeko beharra duzu, ezin diozu eutsi. Zer egingo duzu?
26. Zer gurago duzu pertsona edo robota izan?
27. Bizi gaitezke lagun barik?
28. Aukerarik izanez gero gorputza aldatzeko, aldatuko zenuke? Zergatik?
29. Aitak esaten dizu emakumea dela. Eta gaurtik aurrera soinekoz aterako dela kalera. Zer jarrera hartuko zenuke horrekiko?
30. Zerk ematen dizu/e beldurra? Esaten al duzu/e jendaurrean zerk beldurtzen zaitu/zten? Zergatik?